

# EUSKADIKO ORKESTRA 21-22



**Dutilleux**  
+ **Elgar**  
**Catalán**

MAIATZA 19 MAYO

19:30

PAMPLONA / IRUÑA  
Auditorio BALUARTE Auditoriuma

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular: **ROBERT TREVIÑO**

## **KONTZERTINOA** **CONCERTINO**

Waldemar Machmar

## **I BIOLINAK / VIOLINES I**

Xabier de Felipe (3)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Laura Balboa  
Irene Echeveste  
Marie Gaillard  
Alexandre Kozouline  
Oscar López  
Maite Menéndez  
Larraitx Oartzabal  
Ortzi Oihartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

## **II BIOLINAK / VIOLINES II**

Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Mikel Ibañez (3)  
Amaia Asurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
Ludwik Hamela  
Anne-Marie Harmat  
Antoni Kosc  
Luxi Lavielle (4)  
Kamran Omarli  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

## **BIOLAK / VIOLAS**

Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Monika Mazur (3)  
Pascal Arnaud  
Helline Boulet (4)  
Natacha Dupuy-Scordamaglia  
Justyna Janiak-Krymer  
Arkaitz Martínez  
Sergio Montero  
Yann Seyrac

## **BIOLONTXELOAK** **VIOLONCHELOS**

Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Flore Lefevre (3)  
Natalia Díaz  
Jacek Grabe-Zaremba  
Jon Larraz  
Beatriz Linares  
Tetiana Mertelova (4)  
Pascale Michaud  
Ian Swedlund

## **KONTRABAXUAK** **CONTRABAJOS**

Arkadiusz Maciejski (2)  
Paloma Torrado (2)  
Guangyao Zhao (3)  
Victor Bogdanov  
Noelia Grau (4)  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent

## **FLAUTAK / FLAUTAS**

Hélène Billard-Alirol (2)  
Bruno Claverie (2)  
Ander Erburu  
Oihana Kontxeso

## **OBOEAK / OBOES**

Silvia Esain (2) (4)  
Hervé Michaud (2)  
Rafael Alonso  
Pascal Laffont

## **KLARINETEAK / CLARINETES**

Luis Cámara (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufiaurre

## **FAGOTAK / FAGOTES**

Marco Caratto (2)  
François Proud (2)  
Yuan Dai  
Anne Charlotte Lacroix

## **TRONPAK / TROMPAS**

Jean-Luc Casteret (2)  
Cristian Palau (2)  
Adrián García Carballo  
Marcos Garrido (4)  
Xabier Sarasa  
Salvador Tudela

## **TRONPETAK / TROMPETAS**

Didier Bousquet (2)  
Miguel Echepare (2)  
Jesús Castillo  
Iker Urreta (4)

## **TRONBOIAK / TROMBONES**

Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Daniel Ruibal (4)

## **TUBA**

Oscar Abella (2)

## **TINBALAK ETA PERKUSIOA** **TIMBALES Y PERCUSIÓN**

Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Igor Arostegi  
Xabier Peña

## **HARPA / ARPA**

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea /  
Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen tuttia / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa /  
Contratación temporal

**19** MAIATZA  
MAYO

**Dutillieux**  
+ Elgar  
Catalán



**Robert Treviño**  
Zuzendaria ° Director

**Asier Polo**  
Biolontxeloda ° Violonchelo

## EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

### **TERESA CATALÁN** (1951)

**La victoria vacía** [10']

**ELKANO**

'Elkano: Mundubira musika bidelagun' proiektuaren  
baitako enkarguzko obraren estreinaldia /  
Estreno de la obra encargo del proyecto 'Elkano:  
Mundubira musika bidelagun'

### **EDWARD ELGAR** (1857-1934)

**Concierto en mi menor para violonchelo y orquesta, Op.85** [30']

- I. Adagio – Moderato
- II. Lento – Allegro molto
- III. Adagio
- IV. Allegro – Moderato – Allegro, ma non-troppo – Poco più lento – Adagio

II

### **HENRI DUTILLEUX** (1916-2013)

**Sinfonía nº1** [31']\*

Argitaletxea / edita: Amphion

- I. Passacaille
- II. Scherzo molto vivace
- III. Intermezzo
- IV. Finale con variazioni

\* Lehen aldiz interpretaturiko obra  
Obra interpretada por primera vez

**2**017an Euskadiko Orkestraren titulartasuna bere gain hartu zuenetik, denboraldi sinfonikoek izan ohi duten kanonetik kanpo dauden autoreak eta obrak programazioan sartzearen alde egin du **Robert Treviño**k. Horren adibide garbia da gaurko programa; izan ere, oso obra ezagun batekin batera (Edward Elgarren *Biolontxelorako kontzertua*), Euskal Herrian lehen aldiz entzungo diren bi obra ezagutaraziko dizkigu Treviño: *La Victoria Vacía*, Teresa Catalan konpositore nafarraren erabateko estreinaldia, eta Henri Dutilleuxen *1. Sinfonia* –XX. mendeko funtsezko egilea den arren, bere musika ez baita oso maiz aurkitzen orkestraren kantoreetan–.

**Teresa Catalan**ek eskaintza batekin ekiten dio **La Victoria Vacía** obraren partiturari: «Orduan itzuli ez zirenei eta orain joan direnei». Euskadiko Orkestrako abonatuak badakite *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektuaren laugarren kapituluaren obra dela. Proiektua 2019an hasi zen, munduari egindako lehen biraren 500. urteurrena oroitzeko, eta ordutik hainbat geldialdi egin dira abentura horretan, Mikel Urquiza, Joel Merah eta Mikel Chamizo konpositoreen eskutik.

Egun hauetan, baina 1522an, Espainiara itzultzeko bidean zegoen Elkano; India eta Afrika inguratu zituen eta, beraz, Portugalgo urak ere zeharkatu zituen. Harrapatu egingo ote zituzten beldurrez, Getariako itsasgizonak Victoria itsasontzia aurretik inoiz egon gabeko latitude australera eramán zuten, eta nabigazioa amesgaizto bihurtu zuen itsaso arriskutsu batean barneratu ziren. Elkanok etxera itzultzea lortu zuen, baina eskifaia zati handi bat infernuko bidai horretan hil zen, gaixotasunen, nekearen eta hornidura faltaren ondorioz. Eta, hain zuzen ere, errealitate gazi-goza horren gainean ezarri nahi izan du Teresa Catalanek bere sorkuntza. Bere hitzetan, «Elkanok lehen globalizazioa hasi zuen, baina pertsona askoren heriotzaren kontura, eta horrek justifikatzen du obraren eskaintza. Gaur egun, globalizazioa burututa, pandemia batek milioika pertsonari eragiten die, eta asko eta asko ari dira berrira desagertzen. Gogoeta horretatik abiatuta, egoera zailtan desagertu zirenak eta desagertzen ari direnak omentzen ditut».

Musika-giroan jaio zen arren –haren aita organista zen, eta instrumentu- eta partitura-denda bat zuen Worcesterren–, **Edward Elgar**rek bere kabuz ikasi zuen gehienbat. «Katedralean ikasi nuen nire lehen musika –gogoratzen zuen handik denbora batera–, musika-liburutegitik maileguan hartutako liburuetatik, zortzi, bederatzi edo hamar urte nituela». Bere ibilbideko lehen urteak landa-klubetan jotzen eman zituen, orkestraren bateko biolinista *tuttia* izan zen eta bandak, abesbatza txikiak eta instrumentu-taldeak zuzendu zituen; eta, bitartean, balio gutxiko piezak konposatzen aritzen zen. Emazteak bultzatuta, Londresera joan zen 1889an, konpositore izateko asmoz, baina lanik eta dirurik ez zuenez, Worcestershirera itzuli behar izan zuen bi urte geroago.

Zenbait musikarekin zuen loturari esker, hala nola Schumanekin –«nire ideala», idatzi zuen 1882an–, Wagnerrekin eta Richard Straussekin, bere musikaren kalitatea goratuz joan zen pixkanaka; gainera, kromatismoa eta orkestrazio-teknika germaniko batzuk bereganatu zituen, eta bere kultura musikal propioaren zapora ingelesarekin integratzen jakin zuen. Horrela, ospea lortzen hasi zen –batez ere 1893tik aurrera–, baina ezek ez zuen iragartzen, ezta urrutitik ere, Elgar Britainia Handiko konpositore garrantzitsuen izango zela. Hori egun batetik bestera gertatu zen; zehazki, 1899an, *Enigma bariazioak* estreinatuta zirenean.

Hala ere, arrakasta sortzaileak 20 urte baino ez zion iraun. Ez publikoak alde batera utzi zuelako, baizik eta, 1913tik aurrera, Stravinski eta beste konpositore modernista batzuk nazioartean ezagunak egin zirenean, Elgar zalantzak izaten hasi zelako berak sortutako hizkeraren indarraldiaren inguruan. Sentitu zuen estilo erromantikoaren bolada pasatuta zegoela, eta, zazpi

urte ostean, emaztearen heriotzaren ondorioz, bizitza publikotik erretiratu, eta konposatzeari utzi zion –1920ko eta 1930eko hamarkadetan transkripzio batzuk eta bandarako suite bat baino ez zituen osatu, baina opera bat eta hirugarren sinfonia prestatzen ari zen–.

**Biolontxelorako kontzertua** (1918–1919), beraz, bere azken konposizio handia izan zen. Hala ere, nahikoa entseatu ez zutenez, obraren estreinaldia sekulako hondamendia izan zen. Kontzertua bertan behera uzteko zorian egon zen Elgar, baina aurrera jarraitzea erabaki zuen Felix Salmond solistari zor zion begiruneagatik. Ondoren, Elgarrek askotan grabatu eta zuzendu zuen kontzertua, Beatrice Harrison biolontxelojolearekin batera, baina lanaren inflexio-puntua 1965ean iritsi zen, Jacqueline Du Pre gazteak egin zuen grabazio mitikoari esker: biolontxelo solistaren erreperitorioko piezarik garrantzitsuena bihurtu zuen. Partitura hain lotua geratu zitzaion Du Peri, ezen Rostropovitx handiak ere bere erreperitiotik atera baitzuen, Du Prek hobeto jotzen omen zuelako.

**Asier Polok** Elgarren *Biolontxelorako kontzertua* interpretatu zuen orkestra batekin solista gisa jotzen zuen lehenengo aldian. Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoarekin jo zuen, 21 urte baino ez zituela. Harrezkero, mundu erdian izan du lagun pasio lirikoaren eta intimismo ia mistikoaren artean dagoen kontzertu hau, eta hurbiltasun hori hainbat eta hainbat xehetasunetan ikus daiteke; batez ere, kontzertuaren pasarte kontrastatzaileen zentzua uztartzeko baliatzen duen jakindurian. Hala ere, solista bilbotarrentzat, gaztaroari lotutako obra bat izaten jarraitzen du. «Oso aproposa da biolontxelista gazteentzat», dio Polok, «ulerterraza eta kartsua da, eta solistak primeran pasatzen du. Gaztaroako kontzertu bat bezalakoa da. Eta, jakina, hori da solistoi gehien gustatzen zaiguna».

**Henri Dutilleux** XX. mendeko lehen eta bigarren erdialdeen artean harrapatutako konpositorearen adibiderik onena da. Debussyrengan eta Ravelengan inspiratutako bere gazte-estiloari esker, Erromako Saria irabazi zuen Bigarren Mundu Gerraren aurretik. Baina Dutilleuxek ez zuen Erromako egonaldia amaitu ere egin, armadara deitu baitzuten. Han mediku laguntzaile aritu zen, eta 1940an Parisera itzuli zenean, pianojole, moldatzaile eta musika-irakasle gisa bizi izan zen. Gerra amaitutakoan, Messiaenen antzeko egoera aurkitu zuen Dutilleuxek: Boulez buru zuen gazteria abangoardistaz inguratutako zegoen, eta haiekin erabat identifikatuta sentitzen ez bazen ere, haien eraginez, ezaugarri progresibo eta esperimental ugari sartu zituen bere musikan. Ez zuen ez mugimendu ez eskola bati ere atxiki nahi izan eta, hala ere, nazioarteko onarpena lortu zuen bere «modernismo moderatuari» esker.

1950eko eta 1960ko hamarkadetan, orkestra-sorkuntzak ekoizti zituen gehienbat. Obra horietako lehena **1. Sinfonia** izan zen; Pariseko Théâtre des Champs-Élyséesen estreinatua zuen 1951ko ekainaren 7an. Dutilleuxek egitura formal tradizionalak aukeratu zituen mugimenduetarako: *passacaglia* bat lehenengo mugimenduan eta, gero, *scherzo* bat, *intermezzo* bat eta *finale* bat, bariazioen forman. Baina Dutilleuxek modu paregabea eta ausartean sortzen ditu forma «prefabrikatu» horiek, erabiltzen dituen gaiak eta soinu-materiala molde oro gainditzen duen irudimen-ariketa handi batean etengabe birsortzen direla baitirudi. Orkestraren erabilera ere bikaina da; izan ere, etorkizuneko obretan (*Métaboles* edo *Tout un monde lointain*) hainbesteko mirespena eragin zuen tinbre instrumentalen erabilera sotila iragarri zuen. Baina, berritasun horiek sartu zituen arren, gazteria abangoardistak ez zion barkatu *1. Sinfonia* tradizioan sendo errotuta egotea. Alex Rossek *The Rest is Noise* (2007) liburuan dioenez, Dutilleuxek «bere *1. Sinfonia* sutsu eta diatonikoa aurkeztu zuenean, [Pierre] Boulezek bizkarrara emanez agurtu zuen».

Desde que asumió la titularidad de Euskadiko Orkestra en 2017, **Robert Treviño** realizó una apuesta clara por introducir en su programación a autores y obras en los márgenes del canon sobre el que habitualmente giran las temporadas sinfónicas. El programa de hoy es claro ejemplo de ello, ya que junto a una obra tremendamente popular (el *Concierto para violonchelo* de Edward Elgar), Treviño nos propone el descubrimiento de dos obras que se escucharán por primera vez en Euskadi: *La Victoria Vacía*, estreno absoluto de la compositora navarra Teresa Catalán, y *la Sinfonía nº1* de Henri Dutilleux, un autor fundamental del siglo XX cuya música no se escucha muy a menudo en los atriles de las orquestas.

**Teresa Catalán** abre la partitura de *La Victoria Vacía* con una dedicatoria: "A los que no volvieron entonces, y a los que se han ido ahora". Las/os abonadas/os de Euskadiko Orkestra saben que se trata del cuarto capítulo del proyecto *Elkano: Mundubira musika bidelagun*, que comenzó en 2019 celebrando la partida de la expedición que circunnavegó el mundo hace 500 años y que, después, ha ido deteniéndose en diversos episodios de aquella aventura de manos de los compositores Mikel Urquiza, Joël Mérah y Mikel Chamizo.

Durante estas mismas fechas, pero en 1522, Elkano se hallaba inmerso en el viaje de vuelta a España, rodeando las Indias y África y atravesando, por lo tanto, aguas portuguesas. El temor a que pudieran ser apresados impulsó al marino de Getaria a llevar la Victoria hasta latitudes australes nunca antes alcanzadas, internándose en un mar peligrosísimo que convirtió la navegación en una pesadilla. Elkano logró la proeza de regresar a casa, pero gran parte de la tripulación falleció durante el infernal viaje debido a las enfermedades, el agotamiento y la falta de provisiones. Y es en esa realidad agri dulce en la que Teresa Catalán ha querido imbricar su creación. En sus palabras, "la dedicatoria se justifica porque Elkano empezó la primera globalización, pero a costa de muchas pérdidas humanas. Hoy, con esa globalización culminada, una pandemia afecta a millones de personas y muchas desaparecen de nuevo. Desde esta consideración hago un homenaje a las/os desaparecidas/os, aquellos y estos, en condiciones difíciles".

Aunque nació en un ambiente eminentemente musical, con un padre organista que poseía también una tienda de instrumentos y partituras en Worcester, la educación de **Edward Elgar** fue prácticamente autodidacta. "Mi primera música la aprendí en la Catedral —rememoraría tiempo después—, de libros tomados en préstamo de la biblioteca de música, cuando tenía ocho, nueve o diez años". Pasó los primeros años de su carrera tocando en clubs de campo, en alguna orquesta como violinista de tutti, dirigiendo bandas, pequeños coros y conjuntos instrumentales, mientras componía piezas no demasiado valiosas. Animado por su esposa, en 1889 se trasladó a Londres con la intención de establecerse allí como compositor, pero la falta de trabajo y dinero le obligaron a regresar a Worcestershire dos años más tarde.

Fue su mayor familiaridad con la música de Schumann —"jmi ideall", escribió en 1882—, Wagner y Richard Strauss la que, paulatinamente, iría elevando la calidad de su música, con la adopción de un cromatismo y unas técnicas de orquestación germánicas que Elgar descubrió cómo integrar con el sabor inglés de su propia cultura musical. Comenzó así a adquirir una reputación, sobre todo a partir de 1893, pero nada, ni remotamente, vaticinaba que Elgar habría de convertirse en el compositor nacional británico. Eso ocurrió, de la noche a la mañana, con el estreno de las *Variaciones Enigma* en 1899.

Sin embargo, el éxito creativo solo le duró 20 años. No porque el público le dejara de lado, sino porque a partir de 1913, con el salto a la fama internacional de compositores modernistas como Stravinsky, Elgar comenzó a tener dudas sobre la vigencia de su propio lenguaje. Sintió que el estilo romántico estaba pasando de moda y siete años después, a raíz de la muerte de su mujer, se retiraría de la vida pública y dejaría de componer —en las décadas de 1920 y 1930 tan solo completó algunas transcripciones y una suite para banda, aunque tenía en proyecto una ópera y una tercera sinfonía—.

El **Concierto para violonchelo** (1918-19) fue, por lo tanto, su última gran composición, pero el estreno resultó un auténtico desastre debido a la insuficiencia de ensayos. Elgar a punto estuvo de cancelarlo, pero siguió adelante por respeto al solista, Felix Salmond. Más tarde, el propio Elgar grabó y dirigió el concierto en numerosas ocasiones con la violonchelista Beatrice Harrison, pero el punto de inflexión para la obra llegó en 1965 con la legendaria grabación que realizó la joven Jacqueline Du Pré, que hizo del concierto una pieza central del repertorio para violonchelo solista. La partitura quedó, de hecho, tan ligada a Du Pré que el mismísimo Rostropovich la sacó de su repertorio porque, decía, ella lo tocaba mejor.

**Asier Polo** debutó profesionalmente como solista con una orquesta interpretando el *Concierto para violonchelo* de Elgar. Fue junto a la Sinfónica de Castilla y tenía solo 21 años. Desde entonces, la partitura lo ha acompañado por medio mundo y esa cercanía se puede entrever en infinidad de detalles, sobre todo en la sabiduría con que Polo unifica el sentido de los pasajes contrastantes de este concierto que oscila entre la pasión lírica y un intimismo casi místico. Aunque el solista bilbaíno sigue viendo en ella una obra ligada a la juventud. "Es ideal para un chelista joven", afirma Polo, "fácil de entender, apasionado y el solista se lo pasa en grande. Es, aunque no lo sea, como un concierto de juventud. Y, desde luego, el que más nos gusta a los solistas".

**Henri Dutilleux** es el mejor ejemplo de un compositor atrapado a medio camino entre la primera y la segunda mitad del siglo XX. Él fue el último ganador del Premio de Roma antes de la Segunda Guerra Mundial, practicando un estilo juvenil que bebía abiertamente de Debussy y Ravel. Pero Dutilleux ni siquiera logró finalizar su estancia en Roma, fue llamado al ejército, donde trabajó como asistente médico, y tras su regreso a París en 1940 sobrevivió como pianista, arreglista y profesor de música. Al finalizar la guerra, Dutilleux se encontró en una situación parecida a la de Messiaen: rodeado de una juventud vanguardista, liderada por Boulez, con la que no se sentía plenamente identificado pero que le empujó a adoptar en su propia música numerosos rasgos progresivos y experimentales. Nunca quiso adscribirse a ningún movimiento o escuela y, sin embargo, logró el reconocimiento internacional con ese "modernismo moderado" que practicó.

En las décadas de 1950 y 1960, Dutilleux produjo, sobre todo, creaciones orquestales. La primera de esa serie de obras fue la **Sinfonía n.º1**, presentada en el Théâtre des Champs-Élysées de París el 7 junio de 1951. Las estructuras formales que eligió Dutilleux para cada movimiento son tradicionales: una *Passacaglia* en el primero, y luego un *Scherzo*, un *Intermezzo* y un *Finale* en forma de variaciones. Pero la manera en que Dutilleux elabora esas formas "prefabricadas" es única y arriesgada, ya que los temas y el material sonoro que emplea parecen regenerarse sin fin en un caudaloso ejercicio de imaginación que rebasa cualquier molde. También el uso de la orquesta es ya sobresaliente, anunciando el sutil uso de los timbres instrumentales que causaría tanta admiración en obras futuras como *Métaboles* o *Tout un monde lointain*. Pero, a pesar de estas novedades, la joven vanguardia no le perdonó a Dutilleux que la *Sinfonía n.º1* tuviese un pie firmemente anclado en la tradición. Según recoge Alex Ross en *El ruido eterno* (2007), cuando Dutilleux "presentó su *Primera sinfonía* vibrantemente diatónica, [Pierre] Boulez lo saludó dándole la espalda".

Mikel Chamizo

**HURRENGO ABONU  
KONTZERTUA**  
PRÓXIMO CONCIERTO  
DE ABONO

**EKAINA 6 JUNIO**  
**19:30**

**elGAR**  
+  
**Bartok**  
**Wagner**

**SARRERAK / ENTRADAS**

**10€ < 35€**

- euskadikoorkestra.eus
- baluarte.com
- Taquilla Baluarte leihatila

AZKEN  
ORDU  
GAZTEA!  
10€

EUSKADIKO  
ORKESTRA

21-22



Brahms  
Fest



Tchaikovsky



Shostakovich



Beethoven



Bernstein



Berlioz



Brahms  
Requiem



Dvorak



Mahler



Dutilleul



Eisler



SARRERAK  
ENTRADAS

10€ > 35€

AZKEN  
ORDU  
GAZTEA!

euskadikoorkestra.eus